



Larunbatean hasiko da Bertsolari Txapelketa Nagusia

Bi saio izango dira asteburuan: **Getxon larunbatean eta Arrasaten igandean**. Sarrerak bertsoarrak. eus atarian eskura daitezke, baita saioak izango diren aretoetako leihatiletan ere egunean bertan, aurretik amaitzen ez badira.

Agin Laburu, Eneko Lazkoz, Nerea Elustondo, Oihana Bartra, Peru Abarrategi eta Unai Mendizabal ariko dira kantuan 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen saioan. Irailaren 24an, larunbatean, izango da Getxoko Muxikebarri zentroan.

Ez da, ordea, asteburuko saio bakarra izango. Izan ere, lehenengo fasea amaitu arte, bina saio izango dira astebururo. Hala, Arrasaten izango dugu hitzordua igandean: Gorka Pagonabarraga, Iñaki Apalategi, Joanes Illarregi, Miren Amuriza, Saioa Alkaiza eta Xabier Silveira ariko dira bertsoan Amaia Udal Antzokiko oholtzan.

Bi saioak 17:00etan hasiko dira. Hauetarako sarrerak nahiz hurrengo saioetakoak www.bertsosarrerak.eus atarian eskura daitezke, baita saioak izango diren aretoetako leihatiletan ere egunean bertan, aurretik amaitzen ez

badira. Bazkideek prezio hobean lortu ahal izango dituzue sarrerak.

Saioen inguruko informazioa aurkituko duzu www.bertsozale.eus atarian.

“Orain bai: egin dezagun txapelketa bat, ahalik eta ederrena”

Pasa den irailaren 15ean, bertsolariak, gai-jartzaileak, epaileak, antolatzaileak zein zaleak elkartu ginen Amasa-Villabonan, Bertsolari Txapelketa Nagusiaren aurkezpen ekitaldian.

Beatriz Egizabal aktoreak egin zituen gidari lanak, umore tonuz, elkarteko antolatzaile eta parte-hartzaileei txanda ematen. Gontzal Agote 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko Talde Antolatzaileko kidea izan zen hitza hartzen lehena. Azken urteotako egoera zaila ekarri du gogora, eta txapelketa

atzeratzeko arrazoiak: “Plazarik gabe ez dago txapelketa ulertzerik, plazak behar ditu bertsoak. Kostatu da, baina zorionez, berpiztu da bertso plaza: berriro ere bertsolariak, zaleak, antolatzaileak, bertso-eskolak jo eta su dabilta. Orain bai: egin dezagun txapelketa bat ahalik eta ederrena”, azaldu du eta gehitu: “Orain bai, badira baldintzak txapelketaren jiran zazpi lurraldeetan barna sortzen, kantatzen, ikasten, gozatzen eta goldatzen ibiltzeko”. Nerea Erbitik eta bere taldeak ondutako sintonia ere aurkeztu genuen.

Gozatu udazkenaz, bertsozale!

ANER PERITZ
“EUZKITZE”
Zarautz, 2022-09-02
46. Lizardi Saria:
Txapelkunaren agurra



Doinua: *Tabuak min direnean*

Lizardin Zarautzen hola nola ez ipini gorri?
“Txapel beste inon ez al hongen nahiko egonkor hi?”
Baina kuadrilla bat ez da hona alperrik etorri eta litozko txapel hau hortik nahi dut eratorri. Gure helburu, ideal, utopi eta jatorri gure festa, gure talde gure iletako zorri... Txapela etorri bezela nahiko nioke igorri sortu nahi genukeen eta sortzen ari garen horri.

Lizardi Sariko bertsoaldiak www.bertsoa.eus atarian.



Irailaren 15ean egin genuen Txapelketa Nagusiaren aurkezpen ekitaldia. //XDZ

Lagunarteko eta plaza libreko saioek gora egin dute nabarmen

2022ko lehen sei hilekoan bertso plazak emandako datuak bildu ditu Bertsozale Elkarteak. Pandemia garaian ia desagerturik egon diren saio formatuak beren lekua berreskuratzen hasiak dira, aldi berean, jaialdien kopuruari eutsiz.

Udako datuen irakurketa egin artean, bertsolaritzarentzat 2022ko udaberria loraldi sasoia izan dela esan dezakegu. Hala adierazten dute, behinik behin, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bidez Bertsozale Elkarteak jasotako datuek. 2022ko lehen sei hilekoan izandako bertso saio kopurua 2019koa dezente hurbildu da; are gehiago, martxotik maiatzera bitarteko epea aintzat hartuz gero, aurtengo datuak hobeak izan dira kopuruari dagokionez.

Kopuruaz harago, beste zantzu on batzuk ere ekarri ditu lehen sei hilekoak. Nabarmenena? Pandemia garaian ia desagerturik egon diren lagunarteko eta plaza libreko saioak beren lekua berreskuratzen hasiak direla bertso plazan.

Oro har, bi eta hiru bertsolarien artean egiten diren saio motak dira hauek, zalearengandik oso hurbil. Otordu bueltan egiten dira lagunartekoak eta herriko plazan edo kalean egin ohi dira librekoak; hau da, pandemia garaian hartutako neurriengatik nekez egin zitezkeen saioak dira. 2022ko lehen sei hilekoan, ordea, bertso plaza lehengo itxura hartzen ari dela iradokitzen


dute datuek, formatuari dagokionez. Gainera, aldi berean, jaialdi kopuruari ere eutsi zaio.

Horiek ikustera eta entzutera 36.500 zale inguru joan dira plazara.

Generoari dagokionez

Lagunarteko eta libreko saioen itzulerak, gainera, ez du eragin handirik izan gizon eta emakume bertsolarien parte-hartzearen orekan, betiere irakurketa binariora mugatzen ari garela kontziente izanda. Saio mota hauetan oraindik gizonen parte-hartzea altuagoa bada ere, azken urteotan eman diren aurrerapausoei esker, 2019ko datuetatik urrundu eta azken urteotako norantza parekideari eutsi ahal izan zaio: bertso plazan ari diren %53 dira gizonen eta %47 emakumeen.

Aurrerantzean ere, Bertsozale Elkarteak gainerako tokian tokiko eragileekin bertso plaza sendotzeko, genero ikuspuntutik orekatzeko eta askotariko plaza eskaintzeko lanean jarraituko du.



Plazako bertso saioen datuak azken hiru urtetan. //XDZ



Hasi da **Hitzetik Hortzera**ren denboraldi berria

Udazkenean Bertsolari Txapelketa Nagusiari begira ekoitziko da programa. Eider Perez aurkezleak jarraituko du programaren gidaritzan.

Irailaren 18an hasita, igandero izango dugu Hitzetik Hortzera pantaila txikian, 15:00etan. Abendura bitarte, txapelketari begirakoa izango da programa, eta ohiko martxara itzuliko da ondoren; zehazki, irailaren 18tik abenduaren 11rainokoa izango da txapelketari lotutako sasoi, eta urtarrilaren 15etik apirilaren 9ra artekoa, behin txapelketa amaituta, bertsolaritzaren prisma zabalago bat eskainiko duena.


Azken lau denboraldietan bezala, Eider Perez aurkezlea izango dugu bidelagun. Aitzitik, Gaizka Azkaratek zuzentzen duen programak gidoilari berria izango du: aurrerantzean, Mirari Martiarenak izango du ardura hori.

Bertsoaldiek hartuko dute programaren zatirik handiena;

udazkenean, txapelketako saioek. Larunbateko saioan ondutako bertsoaldiez gozatzeko aukera izango da hurrengo egunean bertan. Atal berriak ere izango dira udazkeneko sasoi honetan: *Izan zirenei galdezka* izenekoan, plazan dabiltzan bertsolariak ariko dira txapelketari loturiko galderak erantzuten, eta *A ze saioa* atalean, Eider Perezek eta Idoia Torregarai txapelketari buruzko elkarrizketa umoretsuak egingo dituzte.

Bi programa berezi gehiago ere eskainiko dira abenduan, finalaren bueltan.

EITBk eta Bertsozale Elkartek ekoizten dute Hitzetik Hortzera elkarlanean. Hogeita hamahirugarren denboraldia du martxan dagoen hau.



Eider Perez eta Gaizka Azkarate, ETBko programazioaren aurkezpenean. //XDZ



Puntu jarrita

GORKA LAZKANO ARRIZUBIETA

Halaxe da bai, Etxahun; bertsoaren iturritik edan duenak ezin izaten du horren egarriz bizi eta bizitzako momenturen batean betekada hartu bada ere, beti izaten da bueltan etortzeko gogoia. Agian beste era batera, agian intentsitate eta pretentsio gutxiagorekin, baina betiere gure bizitzaren parte izan den eta den mundu honetaz gozatzeko jarraitzeko gogoz.

Zuk ondo diozun moduan geldialdi baten ostean noizean behingo saioaren batek edo bertsoarako aukeraren batek nerabezaroko ilusioa berpizten badu ere, benetako ilusioa nerabe eta gazteena da. Izan ere, gazteen momentua da orain, eta errelebo naturalak bidea egin behar du. Durangaldean, esaterako, azken urteetan maila bikaina ematen ari diren bertsolari gazte mordoak dabil plazetan, eta ilusiorik handiena errelebo hori gauzatu dela ikusteak egiten dit.

Hauetako bat Gorka Pagonabarraga da, Durangaldeko bertso-eskolaren hasiera haietan (artean neu ere bertsoetik hurbilago eta bertso-eskolaren inguruan nenbilela) ezagutu nuen mutil-koxkorra. Uda honen hasieretan izan dut aukera, jada hain mutiko ez den Gorkarekin saio osteko gau giroko tertulia, parranda edo dena delakoren bat edo beste konpartitzeko, eta gaztetasunaz, bizitzako aukerez, bertsoaritzaz eta bestelako kontuez hitz egiteko.

Ordu txikietako tertulia horietan ikusi ahal izan dut bertsoa oraindik badela gazteen kontua, eta etorkizuna esku onetan dagoela, ez bakarrik bertso mailari dagokionez, gogoari, ilusioari eta ardurari dagokionez ere bai.

Durangaldea Uztaberitzen bertso zirkuituan edo udako saio eta sariketetan argi ikusi ahal izan dut errelebo hau are eta bistakoago egingo duela udazkenean hasiko den Txapelketa Nagusiak. Bertan izango dugu Gorka bera ere, prestaketa lanekin gutxi ez eta, to beste bat! Bertsoa osasuntsu al dago gazteriaren artean? Zer diozu zuk, *tokaio*?

Koplak

Korsikan, kantu inprobisatuen inguruko topaketa batean

Irailaren 23tik 25era, Bertsolarien Lagunen izenean, Ortz Idoate, Odei Barroso eta Maddi Ane Txoperena Korsikan izango dira kantu inprobisatuen inguruko topaketa batean gonbidatu gisa. Hainbat gai jorratuko dira, baina tarte berezia eskainiko zaio irakaskuntzari. Korsika bera, Toscana, Sardinia eta Balear uharteak izango dira parte hartuko duten gainerako lurraldeak.

Poto-Finixa



Uda koloretan

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Ahalduntze Bertso Eskola Feminista

Urriaren 8an hasiko da Ahalduntze Bertso Eskola Feministaren aurtengo ikasturtea. Emakumeen plazaratzea bultzatzeko asmoz hasi zen bertso-eskola 2015ean, eta jada zenbait ikasturte egin ditu. Hilean behin elkartzen da taldea, larunbatez. Aurtengo ikasturterako izen-ematea irailaren 20an hasi zen www.bertsozale.eus atarian.



PUBLIZITATEA